

KLIMA ALDAKETAREN GAILURRA

Erabaki garrantzitsuak Paris 2015erako utzi dituzte

Itxaropenerako tarte txiki bat ireki arren, orobat porrot sentsazioa gailendu da Limako Klimaren Gailurraren ostean. Lehen aldiz munduko herrialde guztien arteko akordio bat sinatu da, baina akordio ahula da, konpromiso sendorik gabea. Beroketa globala bi gradutik gorakoa izan ez dadin zerbait egitea eskatu zuten zientzialariek azaroan; tamalez, Limako Deia deituriko bost orrialdeko adierazpenak ez du neurri eraginkorrik ezarri.

| UNAI BREA |

LIMAKO KLIMAREN GAILURRA, COP20, hainbat arrazoiengatik izan da berezia. Bate-tik, aste batzuk lehenago AEBek eta Txinak beren gas emisioak murrizteko sinatutako akordioak baikortasuna eragin zuen; bazirudien mundu mailako adostasun zabal baten atarikoak izan zitekeela hura. Bestetik, NBERen Klima Aldaketari buruzko Aditu Taldeak, IPCCk, ohar larria eginga zuen azaro hasieran: karbonorik gabeko ekonomiaranzko urratsak ematea ezinbestekoa da, planetako tenperatura globalaren igoera bi gradutik gorakoa izan ez dadin; langa hori gainditzeak hondamendia izan dezake ondorio.

2020tik aurrera Kyotoko Protokolo zaharkitua ordezkatzeko duen akordioaren zirriborroa adosteko bildu dira munduko agintariak Liman. Datorren urtean Parisen egingo den konferentzian eman beharko zaio akordio horri behin betiko forma, eta Liman ikusitakoaren arabera, lan handia dago egiteko datozen hamabi hilabeteetan.

Konpromiso irmorik gabe oraingoz

Kyotokoak ez bezala, protokolo berriak estatu guztiak neurriak hartzera behartzea nahi da. Baina neurri horien zehaztapena gerorako utzi dute. COP20tik atera den dokumentuak, Limako Deiak, dio herrialde bakoitzak 2015eko urriaren 1erako aurkeztu beharko duela klima aldaketari aurre egiteko plan bat.

Testuaren azken bertsioak ahuldu egiten du konpromisoaren indarra, ez baita inondik inora hasierakoa bezain loteslea. Estatuei “aukera” ematen die, lehengo “beharraren” orde. NBek azaroaren 1ean eduki beharko du prest herrialde guztien plangintzen sintesia. Hau da, hilabete besterik ez da egongo COP21 hasi aurretik. Oso denbora laburra da testu



Negoiazioak 36 orduz luzatu arren, COP20 konferentziaz atera den akordioa ez da nahikoa IPCCko adituek eskatutako neurriak bermatzeko.

bateratua prestatzeko, batez ere kontuan izanda herrialde garatuak eta garapen bidean dauden oso ikusmolde desberdina dutela klimarekiko erantzukizunaz. Desadostasun hori oso agerikoa suertatu da Liman, eta gailurra bi egunez luzatu izanaren arrazoi nagusia izan da.

Funts Berdea, helburutik oso urrun oraindik

Finantziarioa beste desadostasun iturri handi bat da. Nork ordaindu behar ditu klima aldaketak eragindako gastuak? 2011n Klimaren Funts Berdea sortu zen; asmoa da herrialde aberatse- nek diruz horni dezatela, eta diru horrekin garapen bidean daudenek klima aldaketa moteltzeko eta hari egokitzeko proiektuak gauzatu ahal izatea. 2020an 100.000 milioi dolarre- ra iritea da helburua, baina Lima-ko Gailurra eta gero ozta-ozta gainditu dira 10.000 milioiak. NBek arrakastatsutzat jo du lorpen hori... eta COP20 osoa. ■

